





42. alea
2006-Ekaina

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN



4. 5. eta
6. maila

Jolasean garatu egiten gara

Idatzi kalean egonda, plazan, mendian, hondartzan... praktikatu ahal diren jolasak

-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-

Aukeratu bat: _____

- zelako gauzak behar dira?
- zenbat pertsonen artean jolasten da?
- zenbat denbora dirau jolasak?
- Norekin gustatzen zaizu jolastea?

IKUSTEN DUGUNEZ JOLAS UGARI DAGO
IZATEZ MUNDUKO PERTSONA GUZTIAK IBILTZEN DIRA OLGETAN
ETA PERTSONA GUZTIAK GAI GARA JOLASAK ASMATZEKO

IRUDIMENA LANDUZ JOLASAK ASMATU

Jolas mota ugari dago, batzuk eserita egin daitezke eta hitz egiten, pentsatzen, abesten, mimikaz, zarata egiten... ondo pasatzen dugu. Badaude mugimendua eskatzen duten jolasak ere, gorputza prest eta arreta jarri beharrekoak.

1.- BILDU ZAITEZTE TALDEKA ETA AUKERATU JOLAS MOTA BAT:

Adibidez,

- Mugimendu gutxi edo askotakoa.
- Banakakoa edo talde handikoa
- Gutxi pentsatu edo hausnarketa egin beharrekoa
- Ez da ezer behar edo materiala behar da
- Araurik gabekoa edo arau zorrotzekoa
- Pentsatu eta erabaki jolasa ondo ateratzeko estrategia

2.- JOLASAREN DESKRIBAPENA

- Ondo azaldu nola jolasten den
- Erabaki estrategia bat
- Kide batek hitz egindakoa errespetatzen ez badu, adostu zelako erantzuna eman behar zaion
- Aurreikusi jolaskideetan zelako jarrera, sentimendua eta portaera agertuko diren. Ondo pasatuko duzuen, elkarrekin haserretuko zarete....

ONDO PASATU, JOLASTERA!

Ondo pasatzea bada asmoa, gogoratu! ez hartu minik eta utzi lotsak etxean

Txarto ateratzen bada, aztertu zergatiak, estrategia ez da egokia izan, kide batzuek oztopatu egin dute... saiatu berriro

3.- GELAN KOMENTATZEKO:

- Txarto ateratzen bada, aztertu zergatiak, estrategia ez da egokia izan, kide batzuek oztopatu egin dute... saiatu berriro
- Zelan pasatu duten ondoan dituzun pertsonek, zelako zailtasunak eta erraztasunak izan dituzten

Ettxeko guztiak biltzen zaretenean, zertan jolasten duzue?

Guztion artean jolasteko, amak zein jolas du gogokoen?

Guztion artean jolasteko, aitak zein jolas du gogokoen?

Guztion artean jolasteko, nebak - arrebek zein jolas dute gustokoen?

Idatzi ezazu udan jolastu ahalko dituzuen jolasen zerrenda:

- .
- .
- .
- .
- .
- .
- .
- .
- .
- .

Gurasoen txokoa

Jolasa da bitartekari bat, tresna bat, hazi eta garatzeko. Behar adineko garrantzia eman ez bazaio ere, jolasaren jarduera hori funtsezkoa da hezkuntza prozesuan eta haurren bizitzan.

Edozein pertsonak, berdin dio zein adin duen, jolasaren errekurtsoa erabili dezake bere bizitza osoan, eta horren bidez abian jartzen ditu poza, energia, arreta, elkarlana...

Zenbaitetan, era okerrean azaldu digute jolasa, produktibitatea helburu duen gure moduko gizar-te batean, jolasa denbora galtzea baita.

Jolasa da tresna egokia umeein komunikazioa eta harremanak lantzeko, izan ere, modu naturalean erabiltzen dugu hizkuntza eta gureganatzen ditugu arauak.

Pertsona guztiak gara alaiak eta jolastiak, jolastu egin behar horretarako.

El juego es un mediador, una herramienta, para el crecimiento y desarrollo. A pesar de que no se le ha dado la atención necesaria esta actividad es fundamental para el proceso educativo y para la vida en la infancia.

Todas las personas, independientemente de su edad, pueden utilizar los juegos a lo largo de sus vidas como un recurso que ofrece y pone en marcha alegría, energía, habilidades de concentración, cooperación...

En ocasiones el juego ha sido representado de forma incorrecta, en una sociedad como ésta que tiene como objetivo la productividad, se ha considerado una pérdida de tiempo.

El juego es una herramienta adecuada para trabajar la comunicación y la relación en la infancia, se utiliza el idioma y se asimilan las normas de forma natural.

Todas las personas somos divertidas y juguetonas, solo es cuestión de ponernos

Koordinatzailea:



Babeslea:



ARRASATEKO UDALA